



Testua eta marrazkiak: **VANINA STARKOFF**
Itzulpena: **MANU LOPEZ GASENI**

Azal gogorrez koadernatua. 22x30 cm.
48 orrialde. Marrazkiak koloretan.

Hizkuntza hauetan:

- Euskara: "Hodeiekin dantzan"
Kalandraka-Pamiela. ISBN 978-84-7681-649-3
- Gaztelania: "Bailar en las nubes"
Libros para Soñar. ISBN 978-84-8464-743-0
- Galego: "Bailar nas nubes"
MareMar. ISBN 978-84-8464-742-3
- Katalana: "Ballar amb els núvols"
Kalandraka-Hipòtesi. ISBN 978-84-937469-8-8
- Italiara: "Ballare sulle nuvole"
Libri per Sognare. ISBN 978-88-95933-34-4
- Ingelesa: "Dancing in the clouds"
Books for dreaming. ISBN 978-84-8464-745-4
- Portugesara: "Dançar nas nuvens"
Livros para Sonhar. ISBN 978-989-8205-39-1

Salneurria: 15 €



HODEIEKIN DANTZAN

ALBUM ILUSTRATUEN NAZIOARTEKO III. COMPOSTELA SARIAN FINALISTA, 2010

Goizero ateratzen nintzen etxetik hodeiak ikustera. Egunen batean haiekin dantza egin ahal izatea amesten nuen. Amatzok ideia ahazteko esaten zidan, txoriek bakarrik lortzen zutela hodeietara iristea. Baina ni tematuta nengoen...

"Hodeiekin dantzan" egin nahi duen neska baten ametsaren bitartez, liburu honek kultur elkartrukeaz eta jatorri desderdineko pertsonen arteko errespetuaz egiten du gogoeta. Albumeko orrialdeetan, denbora aurrera doala haziz doan herri baten historia kontatzen da, etxeak eraikitzen eta esperientziak partekatzen dituzten biztanle berrien bitartez, latinoamerikar folkloreak oihartzun etengabea tarteko.

Artearen ikuspuntutik, "Hodeiekin dantzan" album naif eta etnikoa da, ilustrazio argitsu, exotiko eta koloretsuez osatua. Testuak, berriz, esaldi labur eta deskribatzaileak baliatuz, metaketa-baliabidea darabil: auzokide berri bakoitzari esker komunitatea aberastu egiten da ohitura, musika eta usain berriekin.

Mestizajea, kulturantzatasuna, elkarbitza eta tolerantzia dira Album Ilustratuen Nazioarteko III. Compostela Sarian finalista izandako lan honen inguruan burura datozen kontzeptuak. Eta neska

- **Tematika:** amets baten atzetik ibiltzeari buruzko kontakizun idealista
- **Gomendatutako adina:** 7 urtetik aurrera
- **Alderdi azpimarragarriak:** Album Ilustratuen Nazioarteko III. Compostela Sarian finalista 2010ean, metaketa darabilen kontakizuna, naif estilokoa.
- **Zehar-lerroak:** kulturantzatasuna, mestizajea; hiriak, elkarbitza, auzo-harremanak, elkarbitza

protagonistari bezala, irakurleei ere hegoak eskaintzen dizkio beren ametsen atzetik ibiltzeari inoiz utz ez diezaioten.

VANINA STARKOFF (Argentina, 1981)

Diseinu Grafikoa ikasi zuen Buenos Aireseko Unibertsitatean. 2005ean ilustratzaile gisa formatzen hasi zen Sótano Blanco arte eskolan, José Sanabria maisuarekin. Gaur egun laguntzaile dabil eskola horretako "Procesos Creativos" izeneko lantegian, Sanabriak koordinatuta, eta haur ilustrazio digitaleko ikastaroaz arduratzen da Vanina Starkoff. Gainera, ilustrazioak eta diseinuak egiten ditu bere kabuz, eta hainbat herrialdeetako argitaletxe eta aldizkarietarako egiten du lan.

